

FUNTSEZKO JARDUERAK

Badaude ekintza- jarduera batzuk enpresa barruan egitea ezinbestekoak direnak, eta garrantzitsua da hauek zeintzuk diren identifikatzea. Jarduera hauek, negozio-ereduak funtziona dezan ezinbestekoak dira eta hainbat motatakoak izan daitezke. Hain zuzen ere, ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak. Aipatu berri ditugun jardueretako batzuk kanpoko enpresen esku utz daitezke, beste batzuk berriz, ez. Beste enpresa batzuen esku, beste enpresari balio erantsirik ematen ez dioten halakoak dira, hau da, gure enpresaren muina osatzen duten ekintza/jarduerak edo jakintzak.

Hasteko, gure enpresaren funtsezko jarduera nagusia gure metxeroen inguruko informazioa zabaltzea da, kutsaduraren aldeko kanpaina baten antzeko zerbait dela ikustaraziz erosleei, nahiz metxeroak sortu eta saltzea da. Gure kasuan, badaude enpresa barruan egin beharreko jarduerak: produkzioa gehien bat. Produkzio barnean, banbu lanketa, montajea eta grabatua sartzen dira. Funtsezko jarduera hauek burutzeko, langileak kontratatuko ditugu, gauza bakoitzean espezializatuak. Produktuaren kalitatea ahalik eta optimoena izan dadin eta enpresa barruan egin ahal izateko, know how delakoaren jarduera baita.

Aurretik saltzea gure funtsezko jarduera nagusietako bat dela aipatu dugun arren, guk gure metxeroak saltzeaz gain, beste enpresa batekin ere kontaktatu eta lan egingo dugu horretarako. Hau da, banaketa adibidez, SEUR enpresaren esku utziko dugu, funtsezko sozietateetan aipatu genuen bezala negozioa optimizatzeko ezinbestekoa baita beste enpresa batzuekin elkartzea. Beste alde batetik, elkartzearen beste helburu nagusi bat arriskuak murriztea da eta guretzat garrantzitsua den errentagarritasuna bermatzea, izan ere, kasu honetan SEUR enpresaren bidez banaketak egitea askoz ere errentagarriagoa da guretzat jarduera hori guk burutzea baino.

Gainera, hornikuntza baliabideak ere beste enpresa batzuek eskuratuko dizkigute: metxeroa fabrikatzeko banbua *Banbu de Ulla S.L* enpresak eta metxeroaren zati elektronikoa ekoizteko *Electronica Selco* enpresak. Gure produktuak funtziona dezan, funtsezko sozietateetan esan bezala, ezinbestekoa dugu elkartzea. Alde batetik, hornitzaileekin harremanetan jartzeko, funtsezko baliabideetan aipatu dugun bezala, Olatz izango da arduraduna, hortaz, *Banbu de Ullas S.L* enpresarekin elkartzea beharrezkoa dugu banbua lortzeko, hau eginez, etorkizunean gastuak murriztuko genituzke eta gure produktua ezagutzera eramango genuke errazago. Beste aldetik, gure ahalmenetatik kanpo dago metxeroaren zati elektrikoa gure kabuz lortzea, horregatik, horretan espezializatutako enpresa bat azpikontratatu dugu, *Electronica Selco* besteak beste. Berriz ere, modu honetan kostuak asko murriztuko genituzke eta baliabide gehiago eskuratuko genituzke. Jarduera hauek ez daude enpresaren know how delakoarekin lotuta, beraz, beste enpresa batzuen esku utzi ditzazkegu.

Beste alde batetik, gure produktuak kalitate testak pasako ditu, ahal bezain onenak izan daitezen eta gure bezeroak asebateak sentitu daitezen. Hori egiteko, AENOR enpresa kontratatuko dugu test hauek gauzatu ahal izateko eta bezeroek hasieratik gugan konfiatu dezaten. Hau kontuan izanik, 20.000 metxerorekin hasiko gara, ditugun baliabideak kontuan hartuta galerarik ez edukitzeko eta kopuru altuenarik hasi ahal izateko.

Ondorioz, honekin guztiarekin, argi gelditzen da gure funtsezko jarduera produkzioa dela, honen azpi lan guztiekin. Horretarako, espezializatutako langileak kontratatuko ditugu enpresa barruan egiteko. Beste alde batetik, banaketa eta hornikuntza bezalakoak beste enpresa batzuen esku utziko ditugu helburu ezberdinak direla medio.